

# SEXISMORIK ETA INDARKERIARIK GABEKO JOLAS ETA JOKOAK AUKERATZEKO DEKALOGOA



MUTIKOEK ETA NESKATILEK JOLAS MOTA GUZTIEKIN GOZATZEKO BEHARRIZAN ETA ESKUBIDE BERBERAK DITUZTE. MUTIKOENTZAKO JOSTAILURIK, BEREZ, EZ DAGO, EZTA NESKATILENTZAT, SOILIK, DEN JOSTAILURIK ERE.



EZ DAGO NESKEN KOLORERIK EZTA MUTILEN KOLORERIK ERE, HORI GIZARTEAK EZARRITAKO ETIKETA BAINO EZ DA, SORMENA MUGATZEN DUENA. GUK AUKERATUKO DITUGU KOLOREAK, EZ KOLOREEK GU.



NORBERAREN BAITAN DAUDEN AUKERA ETA EZAUGARRI ANITZAK ISLATZEN DITUZTEN JOSTAILUAK AUKERATZEN SAIATU: GURE DESBERDINTASUNEAN BERDINAK GARA.



JOSTAILUAK ONDO AUKERATZEKO AHOLKUAK EMANEZ, HEZIKETA ERE EMATEN ARI ZARA. AUKERATU JOSTAILU EGOKIA, KONTUAN HARTUTA SEGURUA, ADINARI BEGIRA EGOKIA ETA SEXISMORIK GABEA DELA.



AUKERATU JOSTAILU APROPOSAK, NESKA-MUTILEK ELKARLANEAN ETA ELKARREKIN JOLASTEKO AUKERA EMANEZ, LEKU PUBLIKO ZEIN PRIVATUETAN. HORREK LAGUNDUKO DIE MUNDUA ASKEAGO ETA BERDINTSUAGO EGITEN.



AUKERATU ITZAZU ELKARRI LAGUNTZA EMATEA BULTZATZEKO JOSTAILUAK, BERDINTASUNEAN, ELKARREN KONTRA ARITZEA BAZTERTUZ (JOKO EZ LEHIAKORRA, IRABAZLERIK BEHAR EZ DUENA).



NESKA-MUTILEN GAITASUN ETA TREBETASUN GUZTIAK LANTZEN DITUZTEN JOSTAILUAK OPARITU, HORRETARAKO JOLAS LASAIK ZEIN BIZIAK ETA FISIKOAK ERABILI.



SENTIMENDU ETA AFEKTIBITATEAREN ARLOAN, BERDINTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA GARAPENA SUSTATZEKO JOLAS ETA JOSTAILUAK BILATU, NESKATILEN ETA MUTIKOEN ARTEAN EZBERDINTASUNIK SORTU GABE.



EZ AUKERATU INDARKERIA BULTZATZEN DUTEN JOSTAILU, JOLAS ETA BIDEO-JOLASIK. HEZI ITZAZU UMEAK, JARRERA BAIKORRAK, ONURAGARRIAK ETA SORTZAILEAK IZATEKO, ARAZOEI KONPONBIDEA EMATEKO UNEAN.



HAINBATETAN PUBLIZITATEAK EZ DITU ERAKUSTEN GURE UMEEI IRAKATSI NAHI DIZKIEGUN IRUDIAK ETA BALIOAK. NESKA-MUTILEI ENTZUTEA GARRANTZITSUA DA. EZ DITUGU EUREN ESKARIAK BAZTERTUKO, BAINA EZ DIEGU ESKATZEN DUTEN GUZTIA ONARTUKO.



BILATU NESKAK ETA MUTILAK AGERTU ETA AIPATZEN DIREN LIBURU, JOLAS, BIDEO-JOLAS ETA JOSTAILUAK.



AUKERATU NESKA-MUTILEN ADINERAKO EGOKIAK DIREN JOSTAILUAK, EUREN JAKINGURA ETA SORMENA BULTZATZEKO.



JOSTAILUA UMEEN ESKUETAN JARRI BAINO LEHEN, IRAKUR ITZAZU SEGURTASUN, MUNTAIA, ERABILERA ETA GOMENDIOEI BURUZKO ETIKETAK. HORRELA, ZELAN FUNTZIONATZEN DUEN JAKINGO DUZU.



AUKERATU INGURUMENA ERRESPETATZEN DUTEN JOSTAILUAK.

# **BAZTERTU MITO ETA BELDURRAK, JOLAS ETA JOSTAILUAK AUKERATZEKO ORDUAN!!!**



## **MUTIKOEN GORPUTZAK NESKATILENAK BAINO BIZKORRAGOAK DIRA**

**EZ** da egia, neskatilak ez dira baldarragoak. Izan ere, baloiarekin jolastean eta soka-saltoan aritzean modu berean lantzen dira indar eta kemena. Neskato bat futboleko lehenengo aldiz aritzean, «neska delako» txarto jokatzeko duela esango diote; baina mutikoak jokatzeko duenean lehenengo aldiz, hasiberria eta traketsa dela esango diote; horri aurre egin ahal izango dio, hobetzeko; «neska izatea» ezin da aldatu, baina kontziente izan gaitzake hori ez dela benetako muga edozein jarduerarako egiteko, kulturak ezarritako estereotipoa baino ez da.

## **ALABAK BALOIA ESKATZEN BADIT....**

Neska-mutileen garapenari begira, motrizitatea landu behar da. Horretarako, jostailu aproposak dira: baloia, bizikleta, soka-saltoa...

## **SEMEAK PANPINA ESKATZEN BADIT...**

Neska-mutilek zaintzeko gaitasuna, elkar ulermena eta sentimenduen adierazpena, besteak beste, errazten dituzten jokabideak garatu behar dituzte, baita etorkizunean, helduak direnean, izan dezaketen bizimoduari dagozkion rola ere (panpinak negar egiten badu edo txizalari bada, zergatik eta zer egingo dudan bera hobeto sentitzeko).

## **MUTIKOEN JOKO AKTIBOAK NAHIAGO DITUZTE, ASTAKILOAK DIRELAKO**

**EZ** dago ikerketarik indarra mutileen ezaugarria dela frogatzeko; alderantziz, baliteke mutikoen ahalmen hori ondo garatzea jaso duten heziketarik, arlo hori garatzera bultzatzen dituztelako; neskatokoei, berriz, erraz galarazten zaie jokaera hori garatzea.

## **JOLASTEKO ORDUAN, MUTIKOEN GUTXIAGO PAIRATZEN DUTE GIZARTEAREN ERAGIN SEXISTA**

**EZ** da egia. Neskatoak nahiz mutikoak dira joko eta jostailu sexisten biktimak. Joko horiek euren garapena mugatzen dute, eredu kulturalak inposatutako jokamoldea ezartzen dietelako. Beraz, neskatokoei zein mutikoei eragiten diete joko sexistek, bazterkeria bultzatzeko arriskua handituz, nahiz eta egoera horren adierazpenak oso ezberdinak izan eta sortutako ondorioak neskatileen garapenari kalte handiagoa egin.


## **ZERTARAKO BALIO DU JOSTAILUEKIN JOKAERA EZ SEXISTA ERAKUSTEAK, GIZARTEAREN EREDUA BESTELAKOA BADA?**

Joko eta jolasen bitartez jokamolde ez sexistak erakusten badizkiegu seme-alabei, jarrera kontziente eta erantzulea sustatuko dugu. Horrela jokatzeko ez da erraza; horretarako, jaso dugun heziketaren mugak gainditzeaz gain, gizarte-eredua bultzatzeko joera ere saihestu behar dugu; izan ere, gizartearen eremuan herritarren erdian eskubideak murriztu egiten dira, sexua dela eta.

## **NESKA-MUTILEI PISTOLA ETA GERRA-JOSTAILUAK UKATZEN BADIZKIEGU, EZ DITUZTE GOGO HANDIAGOAREKIN ESKATUKO?**

Gure seme-alabei berogailu beroaren gainean eskua ez jartzeko edo ez erretzeko esaten diegu; debekuaren aurrean, nahi dutena egiteko gogo handiagoa izango dutelakoan, baimena emango ote diegu? **EZ**. Umeak segurtasun baldintzetan hezi behar ditugu, sinesten ditugun balio eta arauak erakutsiz. Hori da gure erantzukizuna. Gerra-jostailuak ematen badizkiegu jarrera bortitzak bultzatuko ditugu.

# EZ ARRISKATU! ASKO DUZU JOKOANI!!



Jolasa jarduera nagusia da gure seme-alaben bizitzan, jolasaren bitartez ikusi, ikutu, sentitu, irudimena landu eta norberaren gaitasuna garatu egiten da.

## Jostailu bat aukeratu baino lehen, egin gogoeta

	BAI	EZ
Bai neskek bai mutilek jolasteko aukera ematen du?		
Jostailu honekin gustura egongo da zure seme-alaba?		
Jostailu hau umeak duen adinerako aproposa da?		
Behin eta berriro jolas daiteke berarekin?		
Talde jolasa sustatzen du?		
Umeari estereotipo sexistak ez errepikatzen lagunduko dio?		
Jostailu hau nire alaba edo semearekin konpartituko dut?		
Jostailua telebistan agertzen da estereotipo matxista bultzatu gabe?		
Kultur aniztasuna eta naturarekiko errespetua errazten dituen jostailua da?		
Jostailuaren bidez, umeak irudimena landuko du?		

Erantzun gehienak baiezkoak badira, aukeratu duzun jostailua egokia da.

Gure umeek jolasaren bidez helduen arauak eta portaerak ikasten dituzte. Etxean, ikastetxean, kalean eta publizitatean antzemandako rola jokatzeko ikasten dute zehatz-mehatz betez, eta rol horiek gizartearen duten balioa barneratzen dute.

**HAUSNARTU**

**GIZARTEAN NESKATILEI EGOKITZEN ZAIZKIEN ROLAK.....PERTSONAK ETA ETXEA ZAINDU  
GIZARTEAN MUTIKOEI EGOKITZEN ZAIZKIEN ROLAK..... IKERTU ETA BORROKATU**

**NESKEK ZEIN MUTILEK JOLASTEKO AUKERA EMATEN DUTEN JOLAS ETA JOSTAILUAK BULTZATU BEHAR DITUGU, OHIKO ROLEKIN LOTUTAKO JOKAERAK SAIHESTUZ, BAZTERKERIA EKIDITEKO.**

- Neskatilak galarazi zaizkien jolas eta jokoetan arituko dira: kirola, lehiaketak, eraikuntza-jokoak eta ikerketa bultzatuko ditugu ohiko molde estereotipatuak saihestuz, hau da, neska motelak, menpekoak, zaintzaileak edota objektu sexual moduan aurkezten dituzten irudiak baztertuz.
- Mutikoen jostailu eta jolasetan afektibitatea, zaintza, erantzukizunetan parte-hartzea eta elkar ulermena sustatuko dira. Izan ere, gehienetan ez zaie alde horiek lantzea erraztu.